



MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

ZITAPP, gure enpresak, behar pertsonalak modu eraginkorrean eta azkar eskaintzen dituen enpresa bat da, bertan zure asteko, hilabeteko edo edozein denbora tarteko beharra internet bidez eskuratu dezakezu, horrela, eskuratuko duzun zerbitzuen ordu libreak ikusteko aukera ematen dizu.

Bezeroa edo segmentua definitzeko hainbat faktore izan ditugu kontuan: telefonoaren erabilera Espainian eta euskal herrian, herritar kopurua herrialdean, erdi mailako jendearen kopurua, bizi-kalitate maila eta generoa.

Gure eskaria, nukleo urbanoko jendearen artean segmentatzen dugu. Izan ere, 46.66 milioi pertsonetatik 40.00 milioi bizi dira nukleo urbanoetan (2000 biztanletik gorako herriak eta hiriak). Adinari dagokionez, adin erdiko jendea aukeratu dugu. Euskal Herriko datuak ikertu ditugu, Espainiakoak kontuan izateari utzi gabe. INE-ri esker Espainiako datuak ikertu ditugu eta adin tarte horretan 2.1940.663 pertsona bizi dira. Aldiz, Euskal herrian 269.552 pertsona bizi dira adin tarte horietan.

Espainian, biztanleen %85-ak interneta erabiltzen du eta Euskal Herria, internet erabiltzen duten herritar gehien dituen seigarren erkidegoa da. Beraz, eskari handia izango duela aurreikusten da.

Gaur egun, teknologia oso aurreratuta dago, beraz, aukera hori aprobetxatuz, ezinegona den jendearentzat egindako app bat da. Deiak eta deiak egin beharrean, gure app-ari esker, aplikazioa deskargatu eta 5 minututan zure eskaria egina dago eskaintza handiaren artean.

Zitappek eskaintzen dituen zerbitzuak asko dira, gehienak behar pertsonala asetzen dute baina badaude hainbat zerbitzu osasunari lotuta daudenak, masajista adibidez. Gaur egun, jeneralean behar pertsonala gehien zaintzen dutenak emakumeak dira, beraz gehienbat haiei zuzenduta dago. Hortaz gain, Espainiarrak Europa osotik gure irudia gehien zaintzen den herrialdetako bat da.

Erdi mailako jendeari zuzenduta dago, goi-mailako gendeak haien irudia zaintzeko pertsonak kontratatutak dituztelako, normalean. Espainian, 2018an %85-ak osatzen



zuen talde hau, 30.000 mila euro baino gutxiago irabazten dutenak urtean kontutan hartuta.

